

ŒUVRES DU CHANOINE ADÉMA

(Suite)

V. - FABLES

ARTZAIN BELTCHAREN NEURTHIZAK

AINTZIN HITZAK

1

Elhe onak hitz murritzez
Ez du gozo hambatik;
Egia hil laite hotzez,
Deus ez balu soinetik.
Artzain beltcha da neurthizez
Mintzo mendi gainetik.

2

Artzain beltcha beha dago
Mundu huni aspaldi;
Ikhusirik baitu frango.
Denez mintza baladi.
Zembeit ditu erran gogo
Kantuz delarik ari.

3

Kantu berri edo chahar
Hambat baitzen jadanik,
Batzu omen laizte behar
Hautuz berech emanik...
Huna orai zembeit bakhar
Artzain beltcharen ganik.

4

Askoren kanta da bethi
Tilili-ta-talala:
Hitz bat gabe, aire bati
Jo zak eman ahala.
Astoak ere badaki
Orroaz halahala.

5

Hitzak chuchen arrimatuz
 Piko, soinu berdinez,
 Dohazila lerrozkatuz,
 Airez, hegal arinez.
 Artzain beltcha dago kantuz,
 Berak hala eginez.

6

Jakintsunen erranetan
 Behar bada sinheste,
 Ederrena mintzaietan
 Eskuara da, diote.
 Eskualdunek arrotzetan
 Hortaz ohore dute.

7

Eskualdunek arrotzekin
 Ahanztea Eskuara,
 Odolari hori berdin
 Ukho egitea da.
 Gauden erne sar ez dadin
 Ahalke hoi gutara.

8

Eskualduna, hor, ematzik
 Hire kantu ederrak;
 Irrintzinaz ere atchik
 Harroturik bazterrak.
 Ez bahu traba arrotzik
 Zer egin hiro? errak.

ALEGIAK

I

BILDOTCHA ETA OTSOA

1

Primadera goiz batez,
 chirripa batera,
 Ama gabe, bildotcha
 gan zen edatera.
 Hantchet ari zelarik
 churga churga bera,
 Oihanetik otsoa
 zitzaion atera.

2

Otsoak, gorachago
 urean sarturik:
 « Ur hau, erraten dio,
 « zikhintzen dautak hik. »
 — Bildotchak errepusta:
 « Jauna, nik nihundik
 « Hemendik ez dezaket
 « zikhin zure urik. »

3

- « Ichil hadi, kichkila,
« jaz ari baihintzen
« Ene fama onaren
« nun-nahi funditzen.»
- « Jaz ni oraino, jauna,
« sortzekoa nintzen;
« Amaren ttittirat naiz
« oraino ibilzen. »

4

- « Hire ansia zuan,
« hi ez balin bahaiz. »
- « Ez dut nik anaiarik;
« ume bakharra naiz. »
- « Hots! zuetarik norbeit
« entzun diat nik maiz.
« Nitaz bazerasala
« zer-nahi elhe gaitz. »

5

Hartan zen bildotchari
oldartu otsoa,
Eta bi klaskaz zuen
iretsi gaichoa.
Azkarrak duenean
partida flakoa,
Hauzia zoinena den
erran gabe doa,

6

Otsoak bildotchari
egin zioena,
Jainkorikan ez balitz,
nork liro kondena!
Jainko legetik kampo
zertan da zuzena?
Galde zazu indarrez
zoin den nausi dena.

II

BELEA ETA ACHERIA

1

Bele beltchak haragi
puska bat mokoan
Jan gogoaz zadukan,
haitz baten kaskoan.
Acheria ihizin
han gaindi baitzoan,
Usainka eta beha
trikatzen zaio han.

2

« Egun on, Musde Bele,
« zer jaun ederra zu!
« Zure lumen dirdiraz
« Ililluratzan nauzu.
« Kantari eder baten
« fama ere duzu.
« Nahi zintuzket entzun:
« eia, kanta zazu. »

3

Belen lorietan
hasten da kantatzen,
Duelarik zehe bat
mokoa zabaltzen.
Bere zitzia zaio
lurrerat erortzen
Acheria hain chuchen
altchatzen han zen.

4

Acheriak: «Milesker,
« dio beleari.
« Ez gaitela, lo, fida
« lausengariari.
« Ez eta ere gure
« eder usteari.
« Jaki hau daiat hartzen
« hitz on horren sari.»

III

ASTO BAT ERRELEKIEKIN

1

Asto bat kargatua
erreleki sainduz,
Triki triki bazoan
pampalina soinuz.
Jendea, erreleki
hoieri inguruz,
Zeinatuz paratzen zen
ukhurturik buruz.

2

Ohore hoi astoak
beretzat zadukan;
Ez zuen egundaino
holakorik ukhan.
Jendeen agur hoiek
ikhustearikan,
Irrintzinaz hasten da,
lorian, jauzikan.

3

Norbeit, ohartuz horren
atrebentziari,
Oihuz hasi zitzaion:
« Ai! zer astoa hi!
« Ez gaituk, ez, agurka
« hiri buruz ari;
« Hainan hik bizkarrean
« deramakanari. »

4

Zembat den bazterretan
asta horren pare!
Zeren diren aberats
baitute ohore!...
Aberatsak, hartzekotz
ohorea bere.
Behar luke diruaz
bertzerikan ere.

IV

ACHERIA ETA AKHERRA

1

Akher zahar bat eta
acheria behin,
Elgar lagun harturik
bidaiaz zoazin.
Beroz eta egarriz
biek elgarrekin
Zupu baten zolarat
zuten jauzi egin.

2

Zupuko ur hortarik
aski edan eta,
Ateratzeko dute
chutegi pareta.
Han preso egotea
ez dela josteta....
Acheriak dabilka
asko gogoeta.

3

Acheriak erraten
 dio akherrari:
 « Beha zak, to, gogota
 « zertaz naukan ari.
 « Bizkarrez bai adarrez
 « zer zurubia hi!
 « Paret horri chut-chuta
 « hortchet phara hadi. »

4

Akherrak lorietan:
 baietz bai gogotik.
 Paretari bi besoz
 ematen da chutik.
 Laster da acheria
 ilkitzen zuputik.
 Akher gaizoa orai
 zer eginen duk hik?

5

Kampotik acheriak:
 « Egik hik orobat.
 « Bertzenaz ehintzen, to,
 « sartu behar horrat.
 « Nik hemendik hiretzat
 « deusik ez ziroat...,
 « Aintzinetik zertako
 « ez beha gerorat? »

6

Zembat bi zangotako
 acheri holako!
 Guri esker baitire
 jarriak gorachko!
 Arren gutan zembatek
 errekan beharko,
 Ez baigaituzte heiek
 handik aterako!

V

KHUIA ETA HEZKURRA

1

Haitz baten itzalean
 ontsa jan edana;
 Perttoli jakintsuna
 zagoen etzana:
 « Haitzean hezkurr eta
 « khuia nun emana! »
 Ez zitzaioen ongi
 Jainkoaren lana.

2

« Ni izan banintz Jainko,
 « zion bere baithan,
 « Khuia beharko zuen
 « haitz adar hoietan;
 « Hezkur pikorrak aldiz
 « lurrean herrestan.
 « Ai! zer asmua hori
 « gogoratu zaitan! »

3

Perttoli jaun abila
 hartan lokhartu zen.
 Kopetara hor zaio
 hezkur bat erortzen.
 « Atch! dio, zerk nau hola
 « ni atzarrarazten?...
 « Khuia balitz erori,
 « aise hila nintzen. »

4

Jainkoak egin gauzak
 chuchen dire denak,
 Handienak bezala
 berdin ttikienak.
 Mundu huntan Jainkorik
 nahi ez dutenak,
 Orogen makhurtzeko
 hek dire lehenak.

VI

ABEREAK IZURRITEAREKIN

1

Izurrite gorria
 baitzen aberetan,
 Ikustekoak ziren
 denak ikharetan;
 Hobendun handi zombeit
 bide zela hetan.
 Gogoratu zitzairen
 guzieren betan.

2

Hamikaho lehoina
 errege baitzuten,
 Hark manatzen diote
 guziak bil ditzen,
 Zoin den hobendun dena
 atzeman dezaten:
 Denen hiltzea baino
 hobe dela baten.

3

Erregeren baithara
 oro bildu eta,
 Huna Hamikahoren
 mintzatze onhesta:
 « Jaunak izurrite hau,
 « dudarikan ez da,
 « Hobenik ez baginu
 « ez laiteke gertha.

4

« Noren faltaz gaitz hori
 « sartu den gutara,
 « Bakhotchak gure hutsak
 « detzagun deklara.
 « Hobendun bat bizirik
 « uzten balin bada,
 « Izurrite hau nehoit
 « ez daiteke bara.

5

« Ni basten naiz neureen
 « aithortzen lehenik:
 « Ardi, ahari... asko
 « hil eta jan dut nik;
 « Zembeit artzain orobat,
 « gerla hek emandik.
 « Ez dut uste dukedan
 « nik bertze hobenik. »

6

— « Biba lehoina!... zaio
 « acheria hasten.
 « Ardi eta artzainak
 « zintuela jaten!...
 « Ez dut uste zuretzat
 « hori bekhatu den.
 « Zuk janik izaitea
 « ohore zitzairen. »

7

Acheriak arrozoin
 duela diote;
 Lehoinari — hoben duk —
 nekhez erran daite.
 Hartzek eta otsoek
 berdin aithor dute
 Hek ere bai eginik
 arthaldetan kalte.

8

Ordean hoiek ere
 larri eta azkar.
 Holako ihizier
 nol'eta nor jazar?
 Hoién hutsak ez dire
 handi izan behar.
 Hambat dute churitzen
 handi hoiek elgar.

9

Acheriak hau dio:
 « Ez dezaket ukha,
 « Oilo bat hasirikan
 « gau batez pikoka,
 « Uste gabez hil nuen,
 « maiteegiz, potka.
 « Gostu tzar bat bazuen
 « zeren zen koloka. »

10

Jan hark kalte eginik
 zela eri egon...
 Geroztik oilokirik
 ez zitzaiola on...
 Acheria nor-nahik
 garbi zela zion,
 Ez baitzen gezurtirik
 hain abilik nihon.

1 1

Hor gero azkenekotz
 astoa heldu da.
 « Kontzientzian, dio,
 « hau dut errenkura:
 « Igortzen baininduten
 « lanetik barura,
 « Larreko belharretik
 « jan dut nik ardura. »

12

Astoaren aithorra
 dutenean entzun.
 Denek oihuz diote:
 « Hoi da, hoi, hobendun !
 « Holako gaichtaginik
 « ez da izan nihun.
 « Horra izurritea
 « noren gatik dugun. »

13

Beraz, zeren den asta,
 hor peka dezala.
 Ithotzen dute eta
 jaten berehala.
 Mundu huntako legez
 ere halahala,
 Sakrifikatua da
 maiz jende aphala.

VII

HARTZ BAT ETA BI IHIZIARI

1

Larrugin bati behin
 bi Santagraziar:
 « Mendian dugu hartz bat
 « hil gogo a bihar.
 « Haren larrua dugu
 « zuri saldu behar. »
 Tratua egin zuten
 hamar untza zilhar.

2

Bi ihizlari hoiek.
 biharamunean,
 Goizean goizik ziren
 sartu oihanean.
 Iduri hitz harturik,
 orduan berean,
 Hartz eder bat chutchuta
 pharatzten zaie han.

3

Hartza hek uste baino
handichago baitzen,
Gure ihizlariak
horrek ditu lazten.
Bat izai bati gora
zalu da upatzen;
Bertzea, hil iduri,
lurrean etzan zen.

4

Hartza lurrean dagon
horren gana doa.
Galtzerat eginik
han zagon gaizoa.
Hartzak, usainka dio
hurbiltzen ahoa:
« Phu! phu! hau, bai, hila duk;
« hauk usain gaichtoa! »

7

— « Beharirat hurbilduz
« muthur eta hortzak,
« Huna zer erran dautan
« alimale gaitzak:
« Heldu den aldikotzat,
« hau gogoan har zak:
« Larrua saldu gabe
« hil behar dik hartzak. »

VIII

AITA BILTZAILEARI SEME BARRAIARI

1

Aberats zikhoitz batek
metaka diruak
Bethi oso zaduzkan
kutchan giltzatuak.
Semetto bat baitzuen;
hor, atrebituak
Harrapatzen diozka
oro urdinduak.

5

Aphur bat ibilirik
higi'ta ingura,
(Gibel-aldetik zion
sendi usteldura)
Utzi zuen jan gabe,
ez baitzen barura.
Beharrik zen hain ñaphur
goiz hartan hartz hura.

6

Hila zelakoari.
hartza urrunduta,
Laguna heldu zaio:
« Errak, to, ez ukha.
« Hartza ari baitzuan
« hiri mandatuka;
« Zer erran daukan, niri
« aithorturen duka? »

2

Muthiko gaichtaginak
diruaren plazan
Kintaleko harri bat
ezartzen du kutchan.
Aita heldu da; bainan
dirurikan ez han.
Amesten du semea
han zaiola izan.

3

- « Seme frikun, ohoina,
 « zer egin dautak hik?
 « Hik daiztak ene sosak
 « ebatsi kutchatik.
 « Heiekin khendu dautak
 « bihotza errotik.
 « Hilzerat nioak... hil nauk
 « bai hik oraikotik. »

4

- Semeak: « Ori, aita,
 « deus ez duzu galtzen.
 « Harri hori zaitzu hor
 « berdin baliatzen.
 « Sos tchar heien gozoa
 « zuretzat deus ez zen,
 « Ez zintuenaz geroz
 « hortik ateratzen. »

5

Huntan ohart gaizkion
 erran chaharrari:
 Aita biltzaileari
 seme barraiari.
 Chuhur, ez chuhurregi;
 on, bainan ez nagi:
 Bihotzdun, ez fundibil;
 hola laite nahi.

IX

HARTZ PHEREKA LATZ

1

Jaun batek omen zuen
 hartz eskolatu bat.
 (Halako hartz guti da
 agertu mundurat.)
 Jaunak manatuz geroz
 harat edo hunat.
 Oro ziozkan hartzak
 ekhartzen askurat.

2

Hartzaren nausi hori,
 behin baratzean.
 Itzalean etzana
 lo zagon lurrean.
 Hartzak, han baitago zain
 jaunaren aldean,
 Uli bat ikusten du
 haren sudurrean.

3

Behar diola hortik
 uli hori khendu,
 Kintaleko harri bat
 hartzak hor hartzen du.
 Ukhaldiari zaio
 ulia aitzindu:
 Jaunaren kaskoa du
 harriak arraildu.

4

Lausengu moldegaitzek
 holache daukute
 On baino gegiago
 maiz egiten kalte.
 Amodioak balu
 buru'ta berthute
 Adichkidantza ona
 orduantche laite.

X

BURDINA ETA BACHERA

1
Lurrezko eltzeari
burdin tupina bat
Oihuz hasi zitzaion:
« haugi nere ganat.
« Bazter eder ikusten
« ibili behainat;
« Ene lagun hartzen haut
« hemendik aitzinat. »

2
Eltzeak tupinari:
« Jauna, ni zurekin,
« Hauts errecha bainaiz
« ez naitekezu jin.
« Bideko harri batek
« hunkiz geroz behin,
« Segur, hamar pusketan
« niutzake desegin. »

3
Tupinak eltzeari:
« Ez hoin beldur izan;
« Atchikiren haut bethi
« hi nere gerizan.
« Harririk balin bada.
« hark arrail ehitzan,
Ni artean sarturik
« salbaturen hiz han. »

4
Potikoka hor dire
biak abiatzen.
Tupina eltzeari
sahetsez da jartzen;
binan borthizkichegi
baita balambatzen,
Kisk eta kask, eltzea
berak du chilatzen.

5
Tliki batzu handier.
munduko bidetan,
Jarreiki nahi dire
maiz beren kaltetan.
Hegalik gabe gora
ezin joan airetan,
Eroriak gerokotz
hor daude errekan.

6
Flako bahaiz, ez hadin
aise hauts ez chila,
Azkarrago denari
ez hauzirik bila;
Hire chokotik guti
aldara badira:
Seguretik dagona
hura duk abila.

XI

BEHARRAREN INDARRA

1
Aitak manatu zion
seme bati behin,
Larrerat egurketa
goizetik gin zadin:
« Hik ekhartzeko daiat
« zama bat han egin;
« Osorik garraia zak;
« ez zakala arin. »

2
Muthikoa larretik
deus gabe heldu da.
« Aita, nik ez dezakot
« alcha zama hura.
« Ontsa behatu diot,
« ez zazula duda.
« Bakharrik ez naiteke
« lotzerat mentura. »

3

Aitak: «Zer! ez hakien
 « hik, behar bezala?
 « Beharra deitua den
 « gizon bat han zela?
 « Hail, hots! oihu egiok
 « lagun dakikala.
 « Beharra, o beharra.
 « haugi berehala. »

4

Muthiko larrera
 itzultzen da berriz.
 Egurrari so dago,
 hunkitzen du erhiz.
 Gero oihuz hasten da
 bortz edo sei aldiz:
 « Beharra, haugi, othoi...
 « Beharra, hots! nun hiz? »

5

Nehor ez zaiola
 heltzen laguntzera,
 Khechuz eta hasarrez
 hor lotzen da hera.
 Bi haitaz altchatzen du
 zama bizkarrera;
 Mila debruka gero
 derama etchera.

6

« Aita ez zen nehor han;
 « egin diot oihu.»
 — « Nork lagundu hau bada
 « kargatzen hoin zalhu?»
 — « Beharrak nau bortchatu,
 « orai ez dut dolu.
 « Ochala, bertze hura,
 « debruak joan balu! »

7

Aitak, erraten dio:
 « Bethi hola egik.
 « Ontsa bermatzen denak
 « indar handia dik.
 « Nik errana hoi huen;
 « ez zuan bertzerik.
 « Jainkoak laguntzeko
 « ez duk deus hoberik. »

XII

OTSOA ETA AMIAMOKOA

1

Otsoak ahari bat
 baitzuen klaskatu,
 Zintzurtean zitzaion
 hechur bat kokatu.
 Amiamokoari
 zioen eskatu,
 Othoi, plazer zionetz
 hura atheratu.

2

Bere moko luzea
 sarthuz zintzurtera,
 Hegastinak hechurra
 zioen athera.
 Lan-egite hoi sari,
 hor gure barbera
 Otsoari da hasten
 galdez bortz libera.

3

Otsoak huna nola
 zion ihardetsi:
 « Zer! hire lana daiat
 « nik ere onhetsi.
 « Urus haiz, uste gabez,
 « ez baihaut iretsi.
 « Hortan kito garella
 « behar nauk sinhetsi.

4

Otso horren iduri
 da esker gabea,
 Guziz meneko badu
 ongi egilea.
 Ongiari gaizkia
 ez ihardestea,
 Hau bera zaio aski
 hertsu den legea.

XIII

ERLEAK ETA LISTORRAK

1

Erle kofoin bat eztiz
 bethea zelarik.
 Listar alferrak ziren
 han sartu goserik.
 Erleen erregina
 lehenik ithorik,
 Erle-ume guzia
 khendu zuten jorik.

2

Listor hoiek berentzat
 hartzea bertzena,
 Beren legetan zuten
 erraten zuzena.
 Gauzaren edertzeko,
 gehiago dena,
 Erleri zuten oso
 enlaten hobena.

3

Erlen ezti guzia
 laster iretsirik.
 Handik goiti ez zuten
 jateko pochirik.
 Hasi ziren burumbaz,
 hasarrez, gaitzirik,
 Bizitzekorik aski
 erlek ez utzirik.

4

Erlen jabea noizbeit
 zaiote ohartzen;
 Lasto bikhe'ta sofre
 ahur hat du hartzen.
 Gabaz, lo daudelarik,
 ditu lanhoztatzen,
 Eta guziak hantchet
 ithorik ezartzen.

5

Lehengo Printzer eta
 Elizari esker,
 Bazen hainbertze gauza
 handi eta eder.
 Heien ebaslez eta
 chahutzailez leher
 Lehengo jabeeri
 dire orai aher.

6

Lehengoen asmuak
 aise baliatuz,
 Berenak dituztela
 dagozi espantuz.
 Berak lege-egile,
 Jainkoa khasatuz,
 Jenden kontzientzia
 hil dute debekuz.

7

Lanho beltzen leizea
 gakhos dadukana
 Hasarre bethean da;
 ez gaiten engana.
 Leizea zabal dadin
 laster diro mana,
 Bolbora lanho batez
 handi da ja fama.

XIV

OTSOA ETA ZAKHURRA

1

Mundu huntako herri
 nahiz berak jakin,
 Otsoa oihanetik
 athera zen behin.
 Hiri eder baterat,
 hurbiltzearekin,
 Jarri zen buruz buru
 zakhur gaitz batekin.

2

Otsoa zakhurrari
 nahiko zen lotu.
 Gaitzegi baitzitzaion,
 ez zen menturatu.
 Zakhurra bera ere
 beharrik zen prestu.
 Prestuaren indarrak
 badu errespetu.

3

Otsoa mehe bezein
 zakhurra lodi zen.
 Otsoak erran zion:
 « Nolaz hiz hoin gizen?
 « Irakats diezadak
 « zertaz bizi haizen.
 « Bainan ez niri erran
 « egiarik baizen. »

4

— « Jende aberatsekin
 « bizi nauk aspaldi;
 « Egun oroz asean
 « badiat, bortz aldi;
 « Kozinariarekin
 « nauk aichkide handi:
 « Hark niri uzten zautak
 « jan ahal haragi. »

5

Ezpainei milikatuz
 dago ja otsoa;
 « Ai! nik ere, bai, banik
 « hik dukan gozoa!...
 « Bainan gero zer lan duk?
 « Gero norat oa?
 « Nik bezala othe duk
 « gozatzen kampo? »

6

— « Hautematen badiat
 « hurbiltzen ohoinik,
 « Eskale, makhiladun,
 « tzarki bezi denik;
 « Saingaz hasten nauk eta
 « haizatzen tiat nik.
 « Ez diat hori beizik
 « hambat bertze lanik. »

7	<p>Otsoa irriz zaio hasten zakhurrari: « Errak, zer duk lephoan « uhal eder hori? » Zakhurrak errepusta: « Ez erran nehorri, « Hunen esteka hautsiz « nauk hunat, ethorri. »</p>	9	<p>Libertatea zer den otsoak badaki. Gutartean hainitzek ez dakite aski: Libertate zuzena zer den bereziki, Eta hura zein oso behar den atchiki.</p>
8	<p>— « Ez naik ez, ni, estekan « nehork atchikitzen; « Nausirik ez jaberik « ez diat ni baizen. « Hire bizi moldeak « ez naik agradatzen. « Adios, oihanerat « berriz nauk itzultzen.</p>	10	<p>Beren herritik asko doazi hor hara, Hiri'ta gobernuko emplegu hoitara. Hetan sartuz geroztik, zer beldur ikhara!... Behar ordutan ere maiz ezin aldara.</p>

11

Laborari biziak
 gure basherritan
 Badu bertze gozorik;
 ez da dudarikan.
 Chuhurki, ta chimenki
 hantchet egonikan,
 Bakhotcha bereekin,
 eta librorikan.

XV

GATHUA ETA ARROTOINAK

1	<p>Gathu zahar bat bazen nere sor etchean, (Halako bat on laite etche bakhotchecan) Egun oroz ihizin, bardin gau beltzean; Sagu'ta arrotinez zagoen asean.</p>	2	<p>Saguak jan zituen guziak lehenik, Arrotainak ez oro, zailegi izanik. Gutienik ustean. ichilikan jinik. Atzematen zituen amarruz Miñiñik.</p>
---	---	---	--

3

Otsaileko gauetan,
gathu zahar hura
Hauzoko etchetarat
baitzoan ardura;
Arrotoinen artean
izan zen bilkura,
Hitzhartzeko zer egin,
zertara mentura.

4

Arrotoin zaharrenak
hau zioten erran:
« Gathuak gehiago
« ez gaitzan atzeman,
« Kroskoila bat lephotik
« behar zaio eman.
« Jiten bada, soinutik
« dezagun hauteman. »

5

Lan horren egiterat
nor zaion gan nahi...
Batek ihardesten du:
« Ez ni, ez segur ni. »
Bertze batek: « Ni ere
« ez naite atrebi. »
Hola mintzatu ziren
aldizka hamabi.

6

Berrehun han baitziren,
bat ez zen athera
Gathuari lephotik
kroskoil ezartzera.
Ez da aski lan baten
asmatzea bera;
Askotan egitea
nekhe da sobera.

XVI

HAITZA ETA IHIA

1

Haitza miiilzo zitzaion
behin ihiari:
« Ai! zein ez-deusa haizen
« ene aldean Iii !
« Beha zak, to, zein naukan
« handiagoa ni.
« Hi hain herbail eta tchar
« haut nik urrikari. »

2

Ihardetsi zioen,
haitzari ihiak:
« Jainkoak egin gaitu
« zu eta ni biak.
« Harentzat berdin dire
« handi'ta ttikiak;
« Iguzki berak gaitu
« argitzen guziak. »

3

« Ez diagu berdinek
« deusik hik eta nik:
« Hi denmendren haizeak
« hauka hor etzanik;
« Ni ordean niagok
« kaskoa gorarik;
« Ez diat hik bezala
« Jainko acholarik. »

4

Hola mintzo zelarik
ihiari baitza,
Horra nun altchatzen den
kalerna bat gaitza;
Hedoi itsusi batzu
airean dabilta;
Laster dute zerua
ezartzen beltz beltza. »

5

Haitz hura hedoiari
 hurbilago baitzen,
 Ihurtzuria zaio
 gainerat erortzen.
 Haize zirimolak du
 bihurriki jotzen.
 Bai eta erroz gora
 krisk krask aurdikitzen.

6

Ihi gaichoa zagon
 hanchet ukhurtua;
 Gero ikhusi nuen
 herriz chutitua,
 Bere mendretasunaz
 beraz salbatua.
 Horra, jende chehea.
 zure etsemplua.

XVII

TRIPOTA

1

Jende beharrak ziren
 Pello ikhatzkina,
 Eta haren emazte
 Kochepea Martina.
 Beren etchola, zuten
 phezoinez egina,
 Eta janhari hotza
 thalo'ta chardioa.

2

Neguko arrats batez
 senhar emazteak
 Nakhaizturik zaduzkan
 chardina jateak.
 « Gu bethi miserian,
 « asean bertzeak:
 « Makhur dire, zioten,
 « holako legeak. »

3

Sorgin bat sartzen zaie
 leihotik barnera:
 « Heldu naiz hiru gauzen
 « zuei ematera.
 « Galda zatzue hirur,
 « berech bat bedera,
 « Nahi den bezein handi,
 « Deus ez zait sobera. »

4

Pello oihuz hasten da
 supazter zokhotik:
 « Ai! nik tripot bat banu,
 « jan niro gogotik. »
 Tripot bat erortzen da,
 pamp! chiminiatik,
 Jan on bat egin dezan
 Pellok oraikotik.

5

Martinak senharrari:
 « zer pelloa haizen!
 « Ez hakiena zerbeit
 « hoberik galdetzen?
 « Balimba tripot hori,
 « dena den, hoin gizen.
 « Sudurretik dilindan
 « balitzaik gelditzen! »

6

Martinak hitz horiek
 athera orduko,
 Tripota sudurrera
 Pellori doako.
 Khendu nahiz ari da,
 debu'ta karako;
 Sudurrarekin beizik
 ez du atherako.

7

Haur guziak ondotik,
 zakhurak saingaka;
 Lau zehe sudur hoiez
 nola ez ahalka!...
 Etchean ere nola
 andrea balaka?
 Ez diro ichilaraz
 han haren kalaka.

8

Azkenekotz Pellori
 burura zaio jin
 Hirugarren galderik
 ez dutela egin.
 Sudur soberakin hoi
 dio suntsi dadin.
 Tripota suntsitzen da;
 orai du atsegin.

9

Negia hortarik
 zer dagerin, huna:
 Askoren gutizien
 funtsgabetasuna.
 Bil ez badezakegu
 handi den fortuna,
 Dugun goza bederen
 guttien duguna.

XVIII

ELHEZ EZ, NAHIZ BAI

1

Duela ehun urthe
 neskatcha bat bazen,
 Ezkondu nahi zela
 baitzuen ukhatzen.
 Nahia ez da aski
 ez bada bat baizen.
 Bi nahien eskasik
 ez zuen aithortzen.

2

Berrogoi urthetara
 zoala jadanik:
 « Bai, hobe dut, zioen
 « egonik hola nik. »
 Bainan loriatu zen
 galdea izanik
 Manech Pamplan ezkila
 joilearen ganik.

3

Oilo pare batekin
 doa Mariana
 Herriko jaun erretor
 chaharraren gana,
 Eta erraten dio:
 « Hauche da hau lana!
 « Ezkondu behar naizen
 « Erradazut, jauna. »

4

Jaun erretor chaharrak
 dio ihardesten:
 « Aise jakinen duzu
 « baia ala ez den.
 « Ilhutzeko ezkilak
 « duelarik jotzen,
 « Egon zaite han erne
 « zer dion entzuten. »

5

Ilhutzeko ezkilak
jotzen du pam pam plan.
Marianak entzun du:
« Bai Pamplan daut erran.
« Manech Pamplan ezkilak
« dio har dezadan.
« Oraitik ez nagoke
« dudan ez ikharan. »

6

Nahi den hura bethi
ez daiteke gorde,
Ez bortchazkoa jasan
borondate orde.
Gauza bat doanean
gure gogo alde,
Makhurrik hartan baden
ez zazula galde.
